

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala:	0101 - Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritza
Programa:	010 - Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritza
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Departamentuaren egitura

Misioa:

Bultzatzea, koordinatzea eta kontrolatzea departamentuko organo eta zerbitzuek garatutako ekintzak, aurrekontuen eta juridiko arloko laguntza ematea diputatu nagusia, zuzendari eta zerbitzuei eta departamentuko informazio eta administrazio sistemak hobetzea ekar ditzaketen ekintzak bultzatzea. Era berean, unitate honen ardura da Kudeaketa Plan Estrategikoaren jarraipenean kalitatezko laguntza teknikoa ematea.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

2017. urtean argi geratu da Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzak eginkizun oso garrantzitsua egiten duela Kudeaketa Estrategia Zuzendaritza Nagusiaren gidaritzapean garatzen diren jardura estrategikoei laguntza emateko. EBA prozesua ezartzearen ondorioz, idazkaritza honetako kideak prozesuan zehar sortu diren zalantzak erantzuteaz eta argitzeaz arduratu dira. Prozesu horrek arreta jartzen du lortu nahi diren emaitzetan, eta, horretarako, Kudeaketa Plan Estrategikoa eta aurrekontua lotzen ditu. Kudeaketa Plan Estrategikoari dagokionez, aplikazio berri batek burutzen du bere jarraipena.

Zati operatiboari dagokionez, nabarmendu behar da hazi egin direla modu elektronikoan egiten diren izapideak. Jarduketa operatiboaren barnean eginkizun nagusiak dira Diputatu Nagusiaren Alorra osatzen duten gainerako zuzendaritzei laguntza ematea eta sistema administratibo eta informatikoak hobetzeko behar diren ekintzak bultzatzea.

Beharraren eboluzioa:

EBA prozesuak aldaketa sakona suposatu du, idazkaritza honetako kideek erabiltzen dituzten aplikazioetan ere aldaketak suposatu dituen: aurrekontuko aplikazioetan, kontableetan, kudeaketa administratibokoetan... Hortaz, beharrezkoa da aplikazio hauen erabiltzaileak aipatutako aldaketei egokitzea.

Bestalde, prozesu ezberdinetan tramitazio elektronikoa ezarri izana aldaketa bat suposatu du orain arte zeregin horiek egiten ziren moduan, eta beharrezkoa da idazkaritzako kideak ezagupenak izatea izapide elektronikoaren gaiaren inguruan.

Nori zuzendua:

Departamentuko langilegoa eta talde politikoa, herritarrak eta beste departamentuetako langilegoa.

Estrategia del programa

1. Baliabideak (inputak):

Idazkaritzako langilegoa, laguntza teknikoak eta finantza baliabideak.

2. Garatu beharreko

Legezketasun-kontrola, kontabilitate eta aurrekontuaren kudeaketa, kontratazioa eta erregistroa.

KPE-aren jarraipen txostenak sortu.

KPE-aren jarraipen bileren kudeaketa.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Txostenak, pleguak, oinarri arautzaileak, memoriak, hitzarmenak, kontratuak, ekintzak, ebazpenak, aurrekontuen aurreproiektua. Aholkularitza, orokorrean, legearen betetzean, aurrekontuen kudeaketan, kontratazioan eta erregistroa.

Programaren arau esparrua:

Administrazio arloko arautegi orokorra.

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa: Gipuzkoako gobernua atzera asmatzea


Proiektu estrategikoa: Gobernantza onaren estrategia

Urteko helburua: 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategiko eraginkorra lortzea, gobernantza ireki eta elkarlaneanaren bitartez


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
KPE-ko helburu departamentalaren betepena.	Ehunekoa	24,60	50,00	48,35	90,00
KPE-ko helburu estrategikoen betetze maila.	Ehunekoa	25,00	50,00	30,00	90,00

Joera

KPE-ko helburu departamentalaren betepena. – Ehunekoa



KPE-ko helburu estrategikoen betetze maila. – Ehunekoa



Memoria

Helburu honen lorpena neurtzeko erabaki zen departamentuetako 50 helburu estrategikoek % 90etik gorako betetze maila izan behar zutela. Adierazle hori neurtzeko zailtasuna kontuan hartuta, erreferentziazat hartzen dira aipatutako helburu horien aurrerapen maila metatua eta horien aurrekontuaren exekuzio maila. Maila hori % 95ekoa izan da 2017an, beraz, helburuaren betetzea arrazoizkoa izan da. Legealdi osoan, aldiz, aurrerapen maila % 48,35ekoa izan da, helburuaren gainetik, helburu hori % 48koa baitzen. Era berean, bost helburu estrategikoei lotutako adierazleen betetze maila desberdina izan da: oso positiboa langabezia tasari, desberdintasun tasari eta proiektu estrategikoen aurrerapen mailari dagokienez; nahiko positiboa GFaren eta herritarren bizikidetzaren balorazioari dagokienez, nahiz eta ezarritako helburuen azpitik izan; eta negatiboa Gipuzkoako ekonomiaren nazioartekotzea hobetzeari dagokienez. Garrantzia bereko bost helburuak neurtzen baditugu, betetze maila % 60koa izan da 2017an, eta % 30ekoa 2016-2019 aldian, ezarritako % 50eko helburuaren azpitik.

Laburbilduz, Kudeaketa Plan Estrategikoan ezarritako helburuei lotutako adierazleen betetze maila egokia izan da. Alde batetik, betetze maila metatua % 48,35ekoa izan da (ezarritako helburuaren gainetik) eta, bestetik, hiru helburu estrategikotan helburua lortu da, eta beste bi helburutan, berriz, ez da bete, nahiz eta hobetu egin diren, baina aurreikuspenen edo helburuen azpitik.

Bestalde, helburu honi lotutako jarduketa lerroen aurrerapen maila % 88,5ekoa izan da, eta lerro horiei dagokien aurrekontuaren exekuzio maila % 96,17koa izan da. Horrenbestez, helburua lortzeko zehaztutako jarduketaren betetze maila modu kuantitatiboan neurtzeko modu desberdinekin balorazio positiboa eskaintzen digute.

Programa horren zati estrategikoan burutzen diren ekintzei dagokienez, guztiak Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritzaren barruan daude. Kudeaketa Plan Estrategikoaren jarduketa lerroei lotutako ekintzen inguruan idazkaritza honetako kideek burutzen duten zeregin nagusia da laguntza ematea lehen aipatutako zuzendaritzari, berak baitarama izatera estrategikoa duten proiektuen eta ekimenen lidergoa.

Zereginen azterketa kualitatiboa egitean, nabarmendu behar dira zerikusia dutenak Emaizetara Bideratutako Aurrekontua ezartzeko prozesuarekin eta horren etengabeko berrikuspenarekin; izan ere, 2017. urteko aurrekontua egin da ikuspegi hori osorik txertatuta eta Midenet aplikazioa ezarrita. Aplikazio horren bitartez Gipuzkoako Foru Aldundian dauden egituren jarraipena egiten da. Azpimarratu behar da Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako teknikariek lan horretan izan duten dedikazioa, horiek izan baitira gainerako departamentuei eta foru erakunde publikoei aplikazio horren funtzionamendua eta gainerako xehetasunak azaltzeko ardura izan dutenak. Nabarmendu beharreko beste ekintza bat da Ekonomia Suspertzeko Planaren Gizarteratze Plana diseinatzen eta abiarazten izandako parte-hartzea. Hizkuntza berdintasunaren ikuspegitik, ekintzak garatu dira Bikain Plana erreferentziazat hartuta. Eusko Jaurlaritzak emandako ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da, eta egiaztatzen du erakunde batek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren normalizazioaren inguruan duen maila. Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzak, bere ekintza estrategikoak garatzeko orduan, aipatutako planeko alderdi hauek azpimarratu ditu:

Lehenengo ardatzari dagokionez, zerbitzu hizkuntzarena, marketina, publizitatea eta ekitaldi publikoak nabarmendu dira. Bigarren ardatzari dagokionez, lan hizkuntzarena, estrategia nabarmendu da, hizkuntzen kudeaketa txertatuz kudeaketa sistema orokorrean.

Amaitzeko, programaren aurrekontu gauzatzeari dagokionez, gauzatze hori % 86,81ekoa izan da.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	38.228,10	38.228,10	31.468,70		

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
1.1 Ekintza Planaren jarraipena egiteko midenet aplikazioa ezarri. Hileroko eta urteko txostenak egin.	31.201,25	31.201,25	26.152,52		85,00
1.2 Ekintza KPEaren komunikazioa kudeatu . Guztion Gipuzkoa aldikaria prestatzen lagundu.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		50,00

2. Jarduketa ildoak:

Emailtzetara bideratutako aurrekontua.Plangintzako tresnen arteko koherentzia eta elkarlotura lortzea:Kudeaketa Plan Estrategikoa / Aurrekontua / Genero ikuspegiko aurrekontua / Partaidetzazko aurrekontuak / Euskara Plana

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	75.472,95	75.472,95	62.830,30		
2.1 Ekintza EBA prozesuaren berrikusketa osoa egin: bereziki adierazleak, zeharkako planen integrazioa, Aurrerabide ereduaren txertatu...	31.201,25	31.201,25	26.152,52		100,00
2.2 Ekintza Aurrekontu aplikazio informatikoan doiketak egin eta funtzionalitate berriak txertatu.	31.201,25	31.201,25	26.152,52		100,00
2.3 Ekintza Herri politiken eta programen ebaluazioa. 2016an egindako diagnostikoan oinarrituta hiru esperientzia pilotu egin.	13.070,45	13.070,45	10.525,26		70,00

3. Jarduketa ildoak:

Ekonomia Suspertzen Laguntzeko plana:Diputatu Nagusiari sostengua ematea Ekonomia Suspertzen Laguntzeko planaren gidaritza eta koordinazio lana egiten(aurreko orrietan azaltzen da plana), eta lehiakortasunaren garrantziari buruzko diskurtso politikoa sozializatzen eta GFA bihurtzen suspertzearen eragile aktibo, eskura dituen tresnen bitartez batez ere fiskalitatearen eta ekonomia sustatzeko politika publikoen bitartez lehiakortasun

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	7.026,85	7.026,85	5.316,18		

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
--	-----------------------	--------------------------	-----------	---------------	-------------------

3.1 Ekintza

Ekonomia Suspertzen Laguntzeko Planaren Gizarteratze Plana diseinatzen eta martxan jartzen lagundu.

7.026,85

7.026,85

5.316,18

92,00

Helburu estrategikoa: Gipuzkoako gobernua atzera asmatzea


Proiektu estrategikoa: Gobernantza onaren estrategia

Urteko helburua: Epe ertain eta luzerako hausnarketa sustatzea, politika publikoak birbideratzen laguntzeko, gobernantza ireki eta elkarlanakoaren bitartez


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Esperientzia pilotuak abian jartzea Lurraldearen intereseko bost arloetan.	Kopurua	5,00	8,00	8,00	10,00
"Partehartzea" eta "Kontziliazioa" ekimenetan esku hartzen duen langile kopurua.	Kopurua	4.023,00	2.000,00	6.923,00	3.000,00

Joera

Esperientzia pilotuak abian jartzea Lurraldearen intereseko bost arloetan. – Kopurua



"Partehartzea" eta "Kontziliazioa" ekimenetan esku hartzen duen langile kopurua. – Kopurua



Memoria

Helburu honen lorpena neurtzeko erabaki zen legealdian zehar bost esperientzia pilotu abian jartzea. Kasu honetan, emaitzek gaituzte egiten dute hasieran aurreikusitakoa: 2016an abian jarri eta 2017an jarraipena izan duten bost esperientziei (enpresan parte hartzea , kontziliazioa , ikus-entzunezkoak euskaraz , Pasaia eta Bizilagun Sareak) gehitu behar zaizkie 2017an abian jarritakoak (Etxean Bizi , Gazteon Sarelan eta Lurralde Garapeneko Laborategia). Bestalde, parte hartze eta kontziliazioko esperientzia pilotuetan 6.923 pertsona ari dira parte hartzen, hasieran aurreikusitakoak baino askoz gehiago. Beraz, helburuari lotutako adierazleen betetze maila oso positiboa da.

Helburu honi lotutako jarduketak lehen aurrerapen maila, programa honi dagokiona, % 90koa izan da, baita lan ildo hauen barnean dauden ekintzen ere.

2017an ahalegin handia egin da bost proiektu esperimentalak sendotzeko: parte hartzeko 10 esperientzia berri eta kontziliazioko beste 10 abian jarri dira (2016an hasitako beste 20ri gehitzen zaizkienak); ikus-entzunezko produkzioarako laborategia (2de) diseinatu da eta 2018an jarriko da abian Tabakaleran; Adinberri Estrategia zehaztu da (zahartze osasuntsuaren estrategia); eta Bizilagun Sareak esperientziaren barruan boluntariotzako bost proiektu abiarazi dira. 2017an ere proiektu berriak jarri dira abian: a) Etxean Bizi proiektua diseinatu da, mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzea sustatzeko; Gazteon Sarelan proiektua diseinatu da, bazterketa arriskuan dauden gazteei erantzun integrala emateko, helduen bizimodura igarotzen laguntzeko esku hartze bat sustatuz. Era berean, Gipuzkoa Sarean proiektua Lurralde Garapeneko Laborategia deitzen duguna bihurtu da, eta bultzada handia eman zaio eskualde mailako 11 garapen agentziekin 2017ko ekainaren 2an sinatutako hitzarmenaren bidez, elkarEkin programaren barruan lan ildo berri bat gehituz, eta gobernantza eredu berrira eragile berriak erakartzeko hasierako lanak eginez.

Bestalde, 2017an, Etorbizuna Eraikiz-GipuzkoaLabeko bigarren diru laguntza deialdia egin zen, eta bereizi ziren, batetik, eragile ekonomikoek eta sozialek lankidetzan garatutako proiektu berritzaileak (deialdiko 1. eranskina), eta, bestetik, auto-antolakuntza komunitarioko, auzo sareetako eta boluntariotza modu berrien inguruko proiektuak (2. eranskina). Lehenengo multzoan 93 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 16 hautatu ziren, 600.000 euro xedatuz horien finantzaketarako. Bigarren multzoan 19 proiektu aurkeztu ziren eta horietako 5 hautatu ziren, 120.000 euroko finantzaketarekin.

Hizkuntza berdintasunaren ikuspegitik, ekintzak garatu dira Bikain Plana erreferentziazat hartuta. Eusko Jaurlaritzak emandako ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da, eta egiaztatzen du erakunde batek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren normalizazioaren inguruan duen maila. Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzak, bere ekintza estrategikoak garatzeko orduan, aipatutako planeko alderdi hauek azpimarratu ditu:

Lehenengo ardatzari dagokionez, zerbitzu hizkuntzarena, zerbitzua eskaintzeko orduan bezeroekin edo herritarrekin izandako idatzizko zein ahozko harremana nabarmendu da. Bigarren ardatzari dagokionez, lan hizkuntzarena, estrategia nabarmendu da, hizkuntzen kudeaketa txertatuz kudeaketa sistema orokorrean.

Amaitzeko, programaren aurrekontu gauzatzeari dagokionez, gauzatze hori % 86,81ekoa izan da.

Helburuari lotutako jarduketak ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoa Lab programa (Etorkizuna Eraikiz). Prospekzio ariketa partekatu bat egitea lurraldeko eragileekin, lurraldearen etorkizun ekonomiko, sozial eta politikoa garantizatzeko funtsezko erronken inguruan, Gipuzkoaren epe ertainerako politika publikoak eta erronka estrategikoak eraikitzen laguntzeko

Ordainketa kredituak					
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	148.835,30	148.835,30	121.479,90		
1.1 Ekintza Pertsonen partaidetza bultzatu enpresan: proiektuaren koordinazioa eta ebaluazioa.	7.026,85	7.026,85	5.916,18		85,00
1.2 Ekintza Aukera berdintasuna eta kontziliazioa enpresan: proiektuaren koordinazioa eta ebaluazioa.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		95,00
1.3 Ekintza Pasaiaiko egoitzaren proiektua bultzatzen lagundu.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		95,00
1.4 Ekintza Ikus entzunezko produkzioa bultzatu: proiektuaren koordinazioa eta ebaluazioa.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		100,00
1.5 Ekintza Etorkizuna Eraikiz barnean bultzatzen diren proiektuak nazioarte mailako sareetan txertatzen lagundu.	13.070,45	13.070,45	10.525,26		95,00
1.6 Ekintza Etorkizuna Eraikiz programaren barruan bultzatzen ari diren proiektuen gizarteratzea.	19.114,05	19.114,05	15.734,35		95,00
1.7 Ekintza Gipuzkoa Sarean: enpresa ertain eta txikiel zuzentzen zaizkien programen berrikusketa eta sustapen politiken inguruko gobernantza berria finkatzen laguntzea.	61.419,25	61.419,25	52.197,95		100,00
1.8 Ekintza Boluntariotzako modu berriak bultzatu: proiektuaren koordinazioa, ebaluazioa eta finantzaketa.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		100,00
1.9 Ekintza Berrikuntza gizarte eragileen bitartez bultzatu: eragile ekonomiko eta sozialei zuzendutako deialdia. Balore kooperatiboen gizarteratzea.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		100,00
1.10 Ekintza Lau unibertsitateekin hitzarmenak: Etorkizuna Eraikiz programei lotutako ikerketa eta dibulgazioa sustatu.	13.070,45	13.070,45	10.525,26		95,00

2. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoa Taldean programa (Etorkizuna Eraikiz). Elkarlaneko gobernantza eredu bat instituzionalizatzea (elkarriketa eta kontraste sare egonkorak sortzea eta proiektu partekatuak elkarrekin sortzea) Gipuzkoako gizarte antolatuaren deliberazio publikoa eranstea eta protagonismo berezia ematea gai publikoei eta/edo lurraldearen garapena ukitzen dutenei buruzko deliberazioan.

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	39.211,35	39.211,35	31.575,79		
2.1 Ekintza Gizartearen iritzia ezagutzeko neurketak egin.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		100,00
2.2 Ekintza Sortu diren taldeak dinamizatzen eta koordinatzen lagundu.	19.114,05	19.114,05	15.734,35		85,00
2.3 Ekintza Gipuzkoa Taldean adostutako 4-5 proiektuak (Gipuzkoa 2026) zehaztu eta garatzen lagundu.	13.070,45	13.070,45	10.525,26		90,00


Departamentuaren jarduketa operatiboa

Urteko helburua: Diputatu Nagusiaren Alorreko kudeaketa administratiboa hobetu eta Kudeaketa Plan Estrategikoaren jarraipenean kalitatezko laguntza teknikoa eman


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Kalitatezko zerbitzua	Eskala 1-10	0,00	7,50	8,40	8,50
Ordainketak	Ehunekoa	75,00	80,00	85,02	90,00

Joera

Kalitatezko zerbitzua – Eskala 1-10



Ordainketak – Ehunekoa



Memoria

Helburu hau Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako programan egoteak zerikusi zuzena dauka 15/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, 13. artikuluan harentzat ezartzen dituen zereginekin. Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzak zeregin hauek egiten ditu bere eskumenen esparruan:

- Alorreko organoek nahiz Diputatuen Kontseiluak hartu beharreko xedapen, egintza eta ebazpen guztien legezkotasun kontrola egitea.
- Kontratazio espedienteak bideratu eta kudeatzea, eta horien legezkotasun kontrola egitea.
- Xedapen orokorren proiektuak aztertu, prestatu eta horien jarraipena egitea; eta beste administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatuekin lankidetzan aritzeko hitzarmen eta protokoloak aztertu, prestatu eta horien jarraipena egitea.
- Alorreko organoei lege aholkularitza eskaintzea, eskatzen dizkieten txostenak egin eta kontsultei erantzunez.
- Alorreko fede publikoa erabiltzea.
- Alorreko erregistro orokorra eta artxiboa eramatea.
- Alorraren aurrekontuaren aurreproiektua prestatzea, zerbitzuak eta zuzendaritzak koordinatuta.
- Alorreko organoen gastuen kontrola egitea.
- Alorreko jardura ekonomikoaren kudeaketa, tramitazioa eta kontabilitate kontrola egitea.
- Alorreko sistema informatikoa koordinatzea; eta, halaber, Alorraren barruan, identifikazio eta jakinarazpen sistemak kudeatzea eta, oro har, administrazio elektronikoa ezarri eta garatzeko beharrezko neurriak hartzea.

Memoria

k) Laguntza tekniko ematea Alorretik sustatutako plangintza horizontaleko zereginei, zehazki Berdintasun Planari, Euskara Planari edo Bizikidetzaren Planari.

l) Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuak langileen alorrean dituen eginkizunak gauzatzekoan elkarlanean aritzea.

m) Foru Aldundiaren eskumen esparru ezberdinetan emandako foru araudiak idazkaritza teknikoei egozten dizkien eginkizunak gauzatea, bereziki, gardentasunaren eta informazio publiko eskuratzearen alorrean (4/2014 Foru Araua, otsailaren 6koa) eta agiriaren kudeaketaren eta espediente elektronikoaren alorrean (17/2011 Foru Dekretua, ekainaren 14koa); baita bere jardun esparruan egozten edo eskuordetzan ematen zaizkion gainerako eginkizunak gauzatea ere. Bestalde, eta helburu operatibo horren bigarren zatia dagokionez, Idazkaritza honek beharrezko babes emango die Kabinetearen eskumenekoak diren zereginei Foru Aldundi osoko ikuspegi estrategikoa sustatzeko eta legealdiko gobernu programa dinamizatzeko. Horretarako, zeregin hauek egingo ditu:

a) Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusiari laguntzeko unitate tekniko gisa aritzea zuzendaritzak bultzatzen dituen ekimenetan.

b) Babes tekniko ematea Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoa definitzeko nahiz haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

c) Diputatu Nagusiaren Alorraren kudeaketa plana prestatzea eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

d) Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoa eta politika korporatiboak nahiz zeharkakoak ezartzeko sor daitezkeen departamentuen arteko organoetan parte hartzea eta haiek koordinatzea.

e) Izaera estrategikoa eta zeharkakoa duten proiektuak bultzatzeko sortzen diren departamentuetako batzordeen koordinazioan parte hartzea.

Goian azaldutako zereginei dagokionez, eta aipatutako helburua betetzen dela zaintzeko, bi adierazle aukeratu dira. Lehenengoa, departamentua osatzen duten gainerako zuzendaritzei emandako zerbitzuen kalitateari buruzkoa da; horretarako, zuzendaritza horiei emandako zerbitzuei buruzko gogobetetze inkesta bat egin da, eta zuzendaritza horiek kudeatzen dituztenek erantzun dute. Lortutako puntuazioak 1etik 10era bitartekoa izan behar zuen. Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzak 2017ko aurrekontua prestatzeko orduan ezarri zuen helburua 7,5 puntukoa izan zen. Kudeatzaileek emandako puntuazioa jaso eta puntuazio horien guztien batez bestekoa kalkulatu ondoren, 8,4 puntuko nota lortu da eta, beraz, ezarritako aurreikuspenak gainditu egin ditugu. Beraz, ulertzen dugu emaitzak egokiak izan direla eta sendotu egiten dutela idazkaritza honetan egiten dugun lana.

Bigarren adierazlea fakturak ordaintzeko batez beste igarotzen diren egunei buruzkoa da. Aurrekontua prestatzeko unean, helburutzat hartu genuen gure departamentuan sartzen diren fakturen % 80a epe barruan ordaintzea, eta, horien ordaintzari buruzko dokumentazioa aztertu ondoren, konpromisoen % 85,02 legeak ezarritako epearen barruan ordaintzea lortu dugu. Adierazle horrek ere gainditu egin ditu hasieran aurreikusitako aurreikuspenak.

Beraz, bi adierazleak bete egin dira. Dena dela, ulertzen dugu adierazle horiek islatzen dituzten datuek erakusten dutela lana modu eraginkorrean egin dela, eta eguneroko lanak sendotu egiten duela lanak ondo egiten ari garenaren konbentzimendua, nahiz eta uste dugun oraindik ere badagoela zer hobetua. Zentzu horretan, helburu horren menpe dauden jardura ildo guztiek eta, ondorioz, jardura ildo horien menpe dauden ekintza guztiek, % 100eko aurrerapen maila izan dute, eta, gainera, aurrekontua prestatzekoan aurreikusitako epean bete dira.

Hizkuntza berdintasunaren ikuspegitik, ekintzak garatu dira Bikain Plana erreferentziazat hartuta. Eusko Jaurlaritzak emandako ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da, eta egiaztatzen du erakunde batek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren normalizazioaren inguruan duen maila. Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzak, bere ekintza operatiboak garatzeko orduan, aipatutako planeko alderdi hauek azpimarratu ditu:

Lehenengo ardatzari dagokionez, zerbitzu hizkuntzarena, zerbitzua eskaintzeko orduan bezeroekin edo herritarrekin izandako idatzizko zein ahozko harremana nabarmendu da. Bigarren ardatzari dagokionez, lan hizkuntzarena, bezeroak-zerbitzua harremana nabarmendu da, non hizkuntzaren kudeaketa txertatuta dagoen bezeroen edo herritarren harremanetan eta produktuak edo zerbitzuak zabaltzean.

Azkenik, azpimarratu behar da programaren aurrekontu gauzatzea % 86,81ekoa izan dela.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Zerbitzu informatikoak

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	265.843,60	265.843,60	255.538,79		
1.1 Ekintza					
Aplikazio informatiko berriak sortu eta ekipamenduaren erosketa.	265.843,60	265.843,60	255.538,79		100,00

2. Jarduketa ildo:

Langilegoa, erregistro orokorra, artxiboa, jakinarazpenak egitea eta fede publikoa

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	52.281,80	52.281,80	42.101,06		
2.1 Ekintza					
Eskumena duen Departamentuarekin lankidetzatza langilegoaren arloan.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		100,00
2.2 Ekintza					
Sarrera eta irteera erregistroaren antolakuntza eta kudeaketa.	19.114,05	19.114,05	15.734,35		100,00
2.3 Ekintza					
Dokumentu eta espedienteen artxibo orokorra antolatzea.	7.026,85	7.026,85	5.316,18		100,00
2.4 Ekintza					
Jakinarazpenak egin eta ziurtagiriak ematea.	19.114,05	19.114,05	15.734,35		100,00

3. Jarduketa ildo:

Kontabilitate eta aurrekontuaren kudeaketa

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	98.664,10	98.664,10	83.559,58		
3.1 Ekintza					
Aurrekontuen aurreproiektua idaztea.	49.332,05	49.332,05	41.779,79		100,00
3.2 Ekintza					
Aurrekontuen gauzatzearen eta kontabilitatearen jarraipena.	49.332,05	49.332,05	41.779,79		100,00

4. Jarduketa ildoak:

Administrazio kontratazioa eta dirulaguntzen kudeaketa

Ordainketa kredituak					
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	98.649,85	98.649,85	83.558,03		
4.1 Ekintza Departamentuaren kontratuen jarraipena eta kontrola.	49.332,05	49.332,05	41.779,79		100,00
4.2 Ekintza Departamentuaren diru laguntzen jarraipena eta kontrola.	49.317,80	49.317,80	41.778,24		100,00

5. Jarduketa ildoak:

Aholkularitza juridikoa eta legezkotasun-kontrola

Ordainketa kredituak					
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	68.446,10	68.446,10	57.514,14		
5.1 Ekintza Txostenak eta irizpenak ematea.	19.114,05	19.114,05	15.734,35		100,00
5.2 Ekintza Diputatuen Kontseiluaren erabaki, ekintza eta ebazpen proposamenak idaztea.	49.332,05	49.332,05	41.779,79		100,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	491.464,00	491.464,00	450.609,33	450.609,33	450.609,33	91,69
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	112.896,00	112.896,00	75.295,42	70.899,42	70.899,42	62,80
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	604.360,00	604.360,00	525.904,75	521.508,75	521.508,75	86,29
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	288.300,00	288.300,00	253.434,20	253.433,85	253.433,85	87,91
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	288.300,00	288.300,00	253.434,20	253.433,85	253.433,85	87,91
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	892.660,00	892.660,00	779.338,95	774.942,60	774.942,60	86,81

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	216.604,48	234.004,89		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	34.031,68	36.867,66		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	250.636,16	270.872,55		
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	2.034,71	251.399,05		
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	2.034,71	251.399,05		
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	252.670,87	522.271,60		
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	28,31	58,51		

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala:	0110 - Diputatu Nagusiaren Kabinetea
Programa:	100 - Diputatu Nagusiaren Kabinetea
Funtzionala:	912 - Gobernu organoak

Programa mota:

Departamentuaren egitura

Misioa:

Foru Aldundiaren gobernuaren ekintza-arau orokorrak finkatzea, foru diputatuen jokabidea zuzenduz eta koordinatuz eta jardueren oinarrizko estrategiaren ezarrera 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Aurrekontua prestatu zenean ezarritako diagnostikoa ez da aldatu. Orduan ezarri zen bezala, 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoa tresna nagusia izango da GFaren lidergorako eta gobernu jardueraren orientaziorako epe horretan zehar. Legealdia bera aurrera doan heinean, aurrera doa Planaren kudeaketa ere, bere amaiera 2019. ekitaldian duelarik.

Beharraren eboluzioa:

Diputatu Nagusiaren Kabinetea programan jasotzen dira 2015-2019 KPEaren lidergo eta koordinaziorako zuzkidurak. Lan hau Kudeaketa Estrategiako zuzendaritzarekin elkarlanean gauzatzen da. Honako programari dagokion funtsezko zeregina da hau beraz.

Nori zuzendua:

Foru gobernuak: diputatuak, zuzendariak...
Langileria.
Herritarrak.

Estrategia del programa

1. Baliabideak (inputak):

Langilegoa, laguntza teknikoak eta finantza baliabideak.

2. Garatu beharreko

Koordinazio bilerak.
Diputatuen Kontseiluaren bilkurak prestatzea.
BBNNetako agerraldiak.
Kontratuak, diru laguntzak ematea...

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Orientazio politikoa
Jarraibideak.
Ekintza ofizialak eta protokoloa

Programaren arau esparrua:

Arloz arloko administrazio arautegia eta administrazio arautegi orokorra.


2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa:	Gipuzkoako gobernuak atzera asmatzea
Proiektu estrategikoa:	Gobernantza onaren estrategia
Urteko helburua:	2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategiko eraginkorra lortzea, gobernantza ireki eta elkarlanekoaren bitartez


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
KPE-ko helburu departamentalaren betepena.	Ehunekoa	24,60	50,00	48,35	90,00
KPE-ko helburu estrategikoen betetze maila.	Ehunekoa	25,00	50,00	30,00	90,00

Joera

KPE-ko helburu departamentalaren betepena. – Ehunekoa



KPE-ko helburu estrategikoen betetze maila. – Ehunekoa



Memoria

Helburu honen lorpena neurtzeko erabaki zen departamentuetako 50 helburu estrategikoei %90etik gorako betetze maila izan behar zutela. Adierazle hori neurtzeko zailtasuna kontuan hartuta, erreferentziatzat hartzen da aipatutako helburu horien aurrerapen maila metatua eta aurrekontu exekuzioaren maila. Maila hori % 95koa izan da 2017an, beraz, helburuaren betetzea egokia izan da. Adierazle horren betetze maila metatua (2016+2017) % 48,35koa izan da.

Era berean, bost helburu estrategikoei lotutako adierazleen betetze maila desberdina izan da: oso positiboa langabezia tasari, desberdintasun tasari eta proiektu estrategikoen aurrerapen mailari dagokienez; nahiko positiboa GFaren eta herritarren bizikidetzaren balorazioari dagokienez, nahiz eta finkatutako helburuaren

Memoria

azpitik egon; eta negatiboa Gipuzkoako ekonomiaren nazioartekotzea hobetzeari dagokionez. Hori horrela izanik, hiru helburu estrategikoen betetze maila neurtzeko finkatutako helburuak lortu dira eta beste bietan ez. Ondorioz, bost helburuei ponderazio berdina emango bagenie, % 60koa izango litzateke adierazlearen betetze maila, eta betetze maila metatua % 30koa (xedearen azpitik: % 50).

Honako aurrekontu programak Kudeaketa Plan Estrategikoaren 1. departamentuko helburuari lotutako ekintza bat jasotzen du. Hau da, Kudeaketa Plan Estrategikoan jasotako helburu eta proiektu guztien lidergotza eta gauzatzearen gainbegiratzea. Planaren aurrerapen mailaren komunikazioa, bai gizarteari, bai Batzar Nagusiei. Ekintza honen aurrerapen maila % 100ekoa izan da 2017. ekitaldian. Bestalde, programaren aurrekontuaren gauzatzea % 95,8koa da. Balorazio kualitatiboagoa eginez, nabarmentzekoa da 2017an finkatu egin dela aurrekontu jarduera Kudeaketa Plan Estrategikoarekin lotzeko eta zeharkako politikak urteko aurrekontuan txertatzeko prozesua. Hori guztia, Emaizetara Bideratutako Aurrekontuaren (EBA) bidez egin da. Zentzu horretan, bi jarduketa aipatu behar dira: a) ikuspegi honi sakontasun handiagoa ematen dioten aurrerapen adierazgarriak egin dira, eta horri esker, ikuspegi horretatik planifikatzeaz gain jarraipena ere egin ahal izan da Foru Aldundiaren beste aplikazio batzuekin integratutako tresna informatiko baten bidez; b) GFAn zeuden departamentuarterko batzorde desberdinak berriz eratu dira eta departamentuarterko batzorde bakar batean bildu dira, zeinak politika publikoen jarraipena egingo duen ikuspegi desberdinetatik: Kudeaketa Plan Estrategikoa eta zeharkako politika desberdinak (EBA).

Gizarteari zuzendutako Planaren aurrerapen mailaren komunikazioaren arloan, adierazi behar da Aldundiko web orriak ematen duela informazio hori. Halere, datuak eguneratzerakoan ahalegin handiagoa egin behar dela uste da. Batzar Nagusiei dagokienez, 2017ko lehen seihilekoan 2016. ekitaldiari zegokion txostena aurkeztu zen eta lanean ari gara 2017. urteari dagokiona 2018ko lehen seihilekoan aurkezteko.

Hizkuntza berdintasunaren ikuspegiaren kudeaketaren inguruan, Foru Aldundiaren gobernuaren ekintzan hizkuntza berdintasunaren ikuspegiaren ezarrera lidertzea ezarri zen helburu bezala. Hizkuntzen kudeaketaren emaitza zuzena izan da 2017. ekitaldian. Halere, uste da hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzeko lanetan jarraitu behar dela.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	416.108,00	382.386,46	363.067,32		
1.1 Ekintza					
Kudeaketa Plan Estrategikoan jasotako helburu eta proiektu guztien lidergotza eta gauzatzearen gainbegiratzea. Planaren aurrerapen mailaren komunikazioa, bai gizarteari, bai Batzar Nagusiei.	416.108,00	382.386,46	363.067,32		100,00

Helburu estrategikoa: Gipuzkoako gobernua atzera asmatzea


Proiektu estrategikoa: Gobernantza onaren estrategia

Urteko helburua: Epe ertain eta luzerako hausnarketa sustatzea, politika publikoak birbideratzen laguntzeko, gobernantza ireki eta elkarlanakoaren bitartez


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Esperientzia pilotuak abian jartzea Lurraldearen intereseko bost arloetan.	Kopurua	5,00	8,00	8,00	10,00
"Partehartzea" eta "Kontziliazioa" ekimenetan esku hartzen duen langile kopurua.	Kopurua	4.023,00	2.000,00	6.923,00	3.000,00

Joera

Esperientzia pilotuak abian jartzea Lurraldearen intereseko bost arloetan. – Kopurua



"Partehartzea" eta "Kontziliazioa" ekimenetan esku hartzen duen langile kopurua. – Kopurua



Memoria

Helburu honen lorpena neurtzeko erabaki zen legealdian zehar bost esperientzia pilotu abian jartzea. Kasu honetan, emaitzek gaitzitu egiten dute hasieran aurreikusitakoak: 2016an abian jarri eta 2017an jarraipena izan duten bost esperientziei (enpresan parte hartzea , kontziliazioa , ikus-entzunezkoak euskaraz , Pasaia eta Bizilagun Sareak) gehitu behar zaizkie 2017an abian jarritakoak (Etxean Bizi , Gazteon Sarelan eta Lurralde Garapeneko Laborategia). Bestalde, parte hartze eta kontziliazioko esperientzia pilotuetan 6.923 pertsona ari dira parte hartzen, hasieran aurreikusitakoak baino askoz gehiago. Beraz, helburuari lotutako adierazleen betetze maila oso positiboa da.

Honako aurrekontu programak, Kudeaketa Plan Estrategikoaren 2. helburua lortzera zuzentzen diren 3 ekintza jasotzen ditu. Horietako bi, Gizarte zibilaren ekimen bereziak eta Gipuzkoa Lab. Programaren lidergotza eta ebaluaketa Gipuzkoa Lab izeneko jarduketa ildoarekin lotura dute. Ekintza hauen aurrerapen maila % 100ekoa izan da 2017. urtean. Programa honi dagokio, Foru Aldundian gobernuaren ekintza-arau orokorrak finkatzea, foru diputatuen jokabidea zuzenduz eta koordinatuz.

Hirugarren ekintza, Gipuzkoa Taldean. Programaren lidergotza eta ebaluaketa Gipuzkoa Taldean deitzen den jarduketa ildoarekin lotzen da. Kasu honetan ere % 100eko aurrerapen maila izan da 2017. ekitaldian.

Bestalde, programaren aurrekontu gauzatzea % 95,8koa izan da.

2017an ahalegin handia egin da bost proiektu esperimentalak sendotzeko: parte hartzeko 10 esperientzia berri eta kontziliazioko beste 10 abian jarri dira (2016an hasitako beste 20ri gehitzen zaizkienak); ikus-entzunezko produkzioarako laborategia (2de) diseinatu da eta 2018an jarriko da abian Tabakaleran; Adinberri Estrategia zehaztu da (zahartze osasuntsuaren estrategia); eta Bizilagun Sareak esperientziaren barruan boluntarioritzako bost proiektu abiarazi dira. 2017an ere proiektu berriak jarri dira abian: a) Etxean Bizi proiektua diseinatu da, mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzea sustatzeko; Gazteon Sarelan proiektua diseinatu da, bazterketa arriskuan dauden gazteei erantzun integrala emateko, helduen bizimodura igarotzen laguntzeko esku hartze bat sustatuz. Era berean, Gipuzkoa Sarean proiektua Lurralde Garapeneko Laborategia deitzen duguna bihurtu da, eta bultzada handia eman zaio eskualde mailako 11 garapen agentziekin 2017ko ekainaren 2an sinatutako hitzarmenaren bidez, elkarEkin programaren barruan lan ildo berri bat gehituz, eta gobernantza eredu berrira eragile berriak erakartzeko hasierako lanak eginez.

Etorkizuna Eraikiz legealdiaren hasieratik eraikitzen ari den gobernantza ireki eta elkarlanekoaren ereduaren ardatz nagusia bihurtu da, eta 2017. urtea sendotu den urtea izan da. Behin legealdiaren erdia pasata eta KPEan definitutako proiektu estrategiko gehienak bideratuta, gauatzeko ikuspegi oso positiboekin gainera, Diputatuen Kontseiluak, irailean Albaolan egindako bileran, baloratu zuen etapa berri bat irekitzeko garaia zela legealdiaren bigarren zatia aurre egiteko. Horretarako, proiektu estrategiko berriak identifikatu zituen etorkizuneko erronkei aurre egiteko, eta horiek izango dira Gipuzkoaren etorkizunaren gakoak. Hori guztia 2017-2019 aldian Foru Aldundiaren jardura gidatuko duen agenda estrategiko berriaren zutabea izango den Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan.

Hizkuntza berdintasunaren ikuspegiaren kudeaketaren inguruan, Foru Aldundiaren gobernuaren ekintzan hizkuntza berdintasunaren ikuspegiaren ezarrera lidertzea ezarri zen helburu bezala. Hizkuntzen kudeaketaren emaitza zuzena izan da 2017. ekitaldian. Halere, uste da hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzeko lanetan jarraitu behar dela.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoa Lab programa (Etorkizuna Eraikiz). Prospekzio ariketa partekatu bat egitea lurraldeko eragileekin, lurraldearen etorkizun ekonomiko, sozial eta politikoa garantizatzeko funtsezko erronken inguruan, Gipuzkoaren epe ertainerako politika publikoak eta erronka estrategikoak eraikitzen laguntzeko

Ordainketa kredituak

Hasierako
aurrekontua

Behin betiko
aurrekontua

Gauzatzea Sarrera lotua

Aurreratze
gradua

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	659.608,00	710.886,46	687.265,39		
1.1 Ekintza Gipuzkoa Lab. Programaren lidergotza eta ebaluaketa.	659.608,00	607.886,46	584.265,39		100,00
1.2 Ekintza Gizarte zibilaren ekimen bereziak		103.000,00	103.000,00		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoa Taldean programa (Etorkizuna Eraikiz). Elkarlaneko gobernantza eredu bat instituzionalizatzea (elkarrizketa eta kontraste sare egonkorak sortzea eta proiektu partekatuak elkarrekin sortzea) Gipuzkoako gizarte antolatuaren deliberazio publikoa eranstea eta protagonismo berezia ematea gai publikoei eta/edo lurraldearen garapena ukitzen dutenei buruzko deliberazioan.

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	356.664,00	327.759,82	310.514,85		
2.1 Ekintza Gipuzkoa Taldean. Programaren lidergotza eta ebaluaketa.	356.664,00	327.759,82	310.514,85		100,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	797.880,00	726.532,74	669.858,18	669.858,18	669.858,18	92,20
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	391.000,00	366.000,00	365.991,30	365.991,30	365.991,30	100,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	243.500,00	313.500,00	309.998,07	309.998,07	309.998,07	98,88
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.432.380,00	1.406.032,74	1.345.847,55	1.345.847,55	1.345.847,55	95,72
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL		15.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00	100,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		15.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00	100,00
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	1.432.380,00	1.421.032,74	1.360.847,55	1.360.847,55	1.360.847,55	95,76

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	669.858,18			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	365.991,31			
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	309.998,07			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.345.847,56			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL	15.000,00			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	15.000,00			
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	1.360.847,56			
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	95,76			

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA					
Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	112.000,00	112.000,00	153.954,30	137,46	
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES					
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES					
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	112.000,00	112.000,00	153.954,30	137,46	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital					
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total	112.000,00	112.000,00	153.954,30	137,46	

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala:	0120 - Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusia
Programa:	200 - Aldundiaren Kudeaketa Estrategia
Funtzionala:	912 - Gobernu organoak

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Diputatu nagusiari zuzeneko laguntza eskaintzea Gobernuaren jardueran, epe ertaineko ikuspegi estrategiko bat emanez gobernantza ireki eta elkarlaneko eredu baten bidez, haren gidaritza eta koordinaziopean politika publikoak modu eraginkor eta efizientearekin kudeatzeko aukera emango duena. 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoa eta urteko aurrekontua dira Gobernuaren jardura hori eusten duten tresna nagusiak. Beraz, aurrekontu programa horren kudeaketaren bidez, lagundu egin nahi da KPEn eta aurrekontuan ezarritako helburuak modu eraginkor eta efizientearekin lortzen, sustapen eta koordinazio lanak eginez.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Egun bizi dugun egoera aldakor honetan, gizartean sortzen diren arazoak edota beharrak konplexuak izan ohi dira eta horientzat erantzun egokiak aurkitzea, diseinatzea eta martxan jartzea ez dago jada gobernuaren esku soilik. Beraz, eraldaketa eta berrasmatearen prozesu batean gaude sartuta.

Testuinguru honetan, hainbat proiektu jarri dira abian. Kontuan izanda martxan jarritako proiektuak egonkortzen ari direla, egiteko modu berriak proiektu eta esparru berrietara zabaltzeko beharra eta ahalegina handitu egin dira.

Beharraren eboluzioa:

GFA barruan epe ertain-luzeko ikuspegia txertatu behar da; eta koordinazioa eta zeharkakotasuna ere indartu behar dira. Gobernantzaaren ikuspegitik, gizarte eragileekin elkarlana sustatu behar da, eta etorkizuneko erronken identifikazioa eta proiektu berritzaileen diseinua ere haiekin elkarlanean egitea ezinbestekoa da.

Testuinguru honetan, hainbat proiektu jarri dira abian. Kontuan izanda martxan jarritako proiektuak egonkortzen ari direla, egiteko modu berriak proiektu eta esparru berrietara zabaltzeko beharra eta ahalegina handitu egin dira.

Nori zuzendua:

GFA, beste erakundeak (EJ, udalak, unibertsitateak), gizarte eragileak eta eragile ekonomikoak, eta herritarrak.

Estrategia del programa

1. Baliabideak (inputak):

Giza baliabideak, aplikazio eta egitura informatikoak, aurrekontuak - finantza baliabideak eta kanpoko laguntza.

2. Garatu beharreko

Garatuko diren ekintza nagusiak hauek dira: a) Kudeaketa Plan Estrategikoaren gobernantza eredua sendotzea erreminta informatiko berri bat baliatuz, aurreikusten diren jarraipen txostenak eginez; b) EBA proiektua (Emaitzetara Bideratutako Aurrekontua) errotzea, prozesua bere osotasunean aztertuz, bereziki honakoak: adierazleen kalitatea eta zeharkako politiken integrazioa (hizkuntz berdintasuna eta genero berdintasuna); c) GFAn politika publikoen ebaluazioa ezartzeko diseinatutako ekintza plana abian jarri; d) Diputatu Nagusiari laguntza ematea Etorkizuna Eraikiz programaren koordinazioan (GipuzkoaLab eta Gipuzkoa Taldean); e) Ekonomia Sustatzeko Planaren koordinazioan eta gizarteratzean lagundu.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

a) KPEn hileroko jarraipen txostenak eta urteko txostena; b) 2017ko aurrekontu programak jarraitzea aplikazio berriekin eta 2018ko aurrekontua egitea aurkitzen diren hobekuntzekin; c) Gipuzkoa 2026 Plan Estrategikoan jasotako proiektuak bultzatu; d) Etorkizuna Eraikiz-GipuzkoaLak eremuan esperientzia pilotuak gauzatzea eta ebaluatzea; e) Ekonomia Sustatzeko Planaren gizarteratze kanpaina hedabietan, aurkezpenak eta zuzeneko komunikazioa baliatuz, jardunaldiak...

Programaren arau esparrua:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoa.

2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa.

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa: Gipuzkoako gobernua atzera asmatzea


Proiektu estrategikoa: Gobernantza onaren estrategia

Urteko helburua: 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategiko eraginkorra lortzea, gobernantza ireki eta elkarlanekoaren bitartez


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
KPE-ko helburu departamentalaren betepena.	Ehunekoa	24,60	50,00	48,35	90,00
KPE-ko helburu estrategikoen betetze maila.	Ehunekoa	25,00	50,00	30,00	90,00

Joera

KPE-ko helburu departamentalaren betepena. – Ehunekoa



KPE-ko helburu estrategikoen betetze maila. – Ehunekoa



Memoria

Helburu honen lorpena neurtzeko erabaki zen departamentuetako 50 helburu estrategikoek %90etik gorako betetze maila izan behar zutela. Adierazle hori neurtzeko zailtasuna kontuan hartuta, erreferentziatzat hartzen da aipatutako helburu horien aurrerapen maila metatua eta aurrekontu exekuzioaren maila. Maila hori % 95koa izan da 2017an, beraz, helburuaren betetzea egokia izan da. Adierazle horren betetze maila metatua (2016+2017) %48,3koa izan da, finkatutako helburua (%48) betez. Era berean, bost helburu estrategikoei lotutako adierazleen betetze maila desberdina izan da: oso positiboa langabezia tasari, desberdintasun tasari eta proiektu estrategikoen aurrerapen mailari dagokionez; nahiko positiboa GFaren eta herritarren bizikidetzaren balorazioari dagokionez, nahiz eta finkatutako helburuaren azpitik egon; eta negatiboa Gipuzkoako ekonomiaren nazioartekotzea hobetzeari dagokionez. Hori horrela izanik, hiru helburu estrategikoen betetze maila neurtzeko finkatutako helburuak lortu dira eta beste bietan ez. Ondorioz, bost helburuei ponderazio berdina emango bagenie, %60koa izango litzateke adierazlearen betetze maila, eta betetze maila metatua %30koa (xedearen azpitik: %50).

Laburbilduz, Kudeaketa Plan Estrategikoan ezarritako helburuei lotutako adierazleen betetze maila egokia izan da. Alde batetik, departamentuetako helburuen betetze maila %48,3koa izan da (xedearen gainetik) eta, beste aldetik, helburu estrategikoetan, hirutan lortu da xedea eta bitan ez, nahiz eta bi horietan hobekuntza bat eman den, baina aurreikusitakoaren azpitik.

Bestalde, helburu honi lotutako jarduketa lerroen aurrerapen maila % 88,5koa izan da, eta lerro horiei dagokien aurrekontuaren exekuzio maila %96,17koa izan da. Horrenbestez, helburua lortzeko zehaztutako jarduketaren betetze maila kuantitatiboki neurtzeko modu diferenteek balorazio positiboa eskaintzen digute.

Balorazio kualitatiboagoa eginez, nabarmentzekoa da 2017an finkatu egin dela aurrekontu jarduera Kudeaketa Plan Estrategikoarekin lotzeko eta zeharkako politikak urteko aurrekontuan txertatzeko prozesua. Hori guztia, Emaizetara Bideratutako Aurrekontuaren (EBA) bidez egin da. Zentzu horretan, bi jarduketa aipatu behar dira: a) ikuspegi honi sakontasun handiagoa ematen dioten aurrerapen adierazgarriak egin dira, eta horri esker, ikuspegi horretatik planifikatzeaz gain jarraipena ere egin ahal izan da Foru Aldundiaren beste aplikazio batzuekin integratutako tresna informatiko baten bidez; b) GFAn zeuden departamentuarterko batzorde desberdinak berriz eratu dira eta departamentuarterko batzorde bakar batean bildu dira, zeinak politika publikoen jarraipena egingo duen ikuspegi desberdinetatik: Kudeaketa Plan Estrategikoa eta zeharkako politika desberdinak (EBA).

Hizkuntza Berdintasuna

Kudeaketa Estrategiako programak hizkuntza berdintasunaren ikuspegia txertatzen du programa osatzen duten jardueren definizioan eta garapenean. Zentzu horretan, garrantzi berezia du hizkuntzen erabilera egokia zaintzea antolatzen diren bilera eta ekitaldietan. Era berean, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan koordinatzen diren proiektuen kudeaketan, euskara modu ekitatiboan erabiltzea, kudeatu beharreko aldagaita da.

Memoria

Nolanahi ere, Emaizetara Bideratutako Aurrekontua (EBA) bultzatzea balio handiko tresna da hizkuntza berdintasuna bultzatzeko; izan ere, politika publikoen definizioan zeharkako politiken integrazioa sendotzea bilatzen baitu.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	4.574,10	4.574,10	4.630,34		
1.1 Ekintza					
Planaren jarraipena egiteko midenet aplikazioa ezarri. Hileroko eta urteko txostenak egin.	2.744,46	2.744,46	2.778,20		85,00
1.2 Ekintza					
KPEaren komunikazioa kudeatu . Guztion Gipuzkoa aldiakaria prestatzen lagundu.	1.829,64	1.829,64	1.852,14		50,00

2. Jarduketa ildoak:

Emaizetara bideratutako aurrekontua. Plangintzako tresnen arteko koherentzia eta elkarlotura lortzea: Kudeaketa Plan Estrategikoa / Aurrekontua / Genero ikuspegiko aurrekontua / Partaidetzazko aurrekontuak / Euskara Plana

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	128.233,38	157.878,38	126.700,76		
2.1 Ekintza					
EBA prozesuaren berrikusketa osoa egin: bereziki adierazleak, zeharkako planen integrazioa, Aurrerabide ereduaren txertatu...	73.667,28	73.667,28	59.079,18		100,00
2.2 Ekintza					
Aurrekontu aplikazio informatikoan doiketak egin eta funtzionalitate berriak txertatu.	914,82	914,82	926,06		100,00
2.3 Ekintza					
Herri politiken eta programen ebaluazioa. 2016an egindako diagnostikoan oinarrituta hiru esperientzia pilotu egin.	53.651,28	83.296,28	66.695,52		70,00

3. Jarduketa ildoak:

Ekonomia Suspertzen Laguntzeko plana: Diputatu Nagusiari sostengua ematea Ekonomia Suspertzen Laguntzeko planaren gidaritza eta koordinazio lana egiten (aurreko orrietan azaltzen da plana), eta lehiakortasunaren garrantziari buruzko diskurtso politikoa sozializatzen eta GFA bihurtzen suspertzearen eragile aktibo, eskura dituen tresnen bitartez batez ere fiskalitatearen eta ekonomia sustatzeko politika publikoen bitartez lehiakortasun

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	766.744,46	766.744,46	761.932,86		
3.1 Ekintza					
Ekonomia Suspertzen Laguntzeko Planaren Gizarteratze Plana diseinatzen eta martxan jartzen lagundu.	766.744,46	766.744,46	761.932,86		92,00

Helburu estrategikoa: Gipuzkoako gobernua atzera asmatzea


Proiektu estrategikoa: Gobernantza onaren estrategia

Urteko helburua: Epe ertain eta luzerako hausnarketa sustatzea, politika publikoak birbideratzen laguntzeko, gobernantza ireki eta elkarlanakoaren bitartez


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Errealia	Agintaldiko helburua
Número de programas innovadores impulsados en el marco de GipuzkoaLab	Kopurua	5,00	8,00	8,00	4,00
"Partehartzea" eta "Kontziliazioa" ekimenetan esku hartzen duen langile kopurua.	Kopurua	4.023,00	2.000,00	6.923,00	3.000,00

Joera

Número de programas innovadores impulsados en el marco de GipuzkoaLab – Kopurua



"Partehartzea" eta "Kontziliazioa" ekimenetan esku hartzen duen langile kopurua. – Kopurua



Memoria

Helburu honen lorpena neurtzeko erabaki zen legealdian zehar bost esperientzia pilotu abian jartzea. Kasu honetan, emaitzek gaitz egiten dute hasieran aurreikusitakoa: 2016an abian jarri eta 2017an jarraipena izan duten bost esperientziei (enpresan parte hartzea , kontziliazioa , ikus-entzunezkoak euskaraz , Pasaia eta Bizilagun Sareak) gehitu behar zaizkie 2017an abian jarritakoak (Etxean Bizi , Gazteon Sarean eta Lurralde Garapeneko Laborategia). Bestalde, parte hartze eta kontziliazioko esperientzia pilotuetan 6.923 pertsona ari dira parte hartzen, hasieran aurreikusitakoak baino askoz gehiago. Beraz, helburuari lotutako adierazleen betetze maila oso positiboa da.

Helburu honi lotutako jarduketaren lehen aurrerapen maila % 95,04koa izan da, eta lehen horiei dagokien aurrekontuaren exekuzio maila %98,95koa izan da. Horrenbestez, helburua lortzeko zehaztutako jarduketaren betetze maila kuantitatiboki neurtzeko modu diferenteek balorazio oso positiboa eskaintzen digute.

2017an ahalegin handia egin da bost proiektu esperimentalak sendotzeko: parte hartzeko 10 esperientzia berri eta kontziliazioko beste 10 abian jarri dira (2016an hasitako beste 20ri gehitzen zaizkienak); ikus-entzunezko produkzioarako laborategia (2de) diseinatu da eta 2018an jarriko da abian Tabakalera; Adinberri Estrategia zehaztu da (zahartze osasuntsuaren estrategia); eta Bizilagun Sareak esperientziaren barruan boluntariotzako bost proiektu abiarazi dira. 2017an ere proiektu berriak jarri dira abian: a) Etxean Bizi proiektua diseinatu da, mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzea sustatzeko; Gazteon Sarean proiektua diseinatu da, bazterketa arriskuan dauden gazteei erantzun integrala emateko, helduen bizimodura igarotzen laguntzeko esku hartze bat sustatuz. Era berean, Gipuzkoa Sarean proiektua Lurralde Garapeneko

Memoria

Laborategia deitzen duguna bihurtu da, eta bultzada handia eman zaio eskualde mailako 11 garapen agentziekin 2017ko ekainaren 2an sinatutako hitzarmenaren bidez, elkarEKIN programaren barruan lan ildo berri bat gehituz, eta gobernantza eredu berrira eragile berriak erakartzeko hasierako lanak eginez.

Bestalde, 2017an, Etorkizuna Eraikiz-GipuzkoaLabeko bigarren diru laguntza deialdia egin zen, eta bereizi ziren, batetik, eragile ekonomikoek eta sozialek lankidetzan garatutako proiektu berritzaileak (deialdiko 1. eranskina), eta, bestetik, auto-antolakuntza komunitarioko, auzo sareetako eta boluntariotza modu berrien inguruko proiektuak (2. eranskina). Lehenengo multzoan 93 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 16 hautatu ziren, 600.000 euro xedatuz horien finantzaketarako. Bigarren multzoan 19 proiektu aurkeztu ziren eta horietako 5 hautatu ziren, 120.000 euroko finantzaketarekin.

Etorkizuna Eraikiz legealdiaren hasieratik eraikitzen ari den gobernantza ireki eta elkarlanekoaren ereduaren ardatz nagusia bihurtu da, eta 2017. urtea sendotu den urtea izan da. Behin legealdiaren erdia pasata eta KPEan definitutako proiektu estrategiko gehienak bideratuta, gauzatzeko ikuspegi oso positiboekin gainera, Diputatuen Kontseiluak, irailean Albaolan egindako bileran, baloratu zuen etapa berri bat irekitzeko garaia zela legealdiaren bigarren zatia aurre egiteko. Horretarako, proiektu estrategiko berriak identifikatu zituen etorkizuneko erronkei aurre egiteko, eta horiek izango dira Gipuzkoaren etorkizunaren gakoak. Hori guztia 2017-2019 aldian Foru Aldundiaren jardura gidatuko duen agenda estrategiko berriaren zutabea izango den Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan.

Hizkuntza Berdintasuna

Kudeaketa Estrategiako programak hizkuntza berdintasunaren ikuspegia txertatzen du programa osatzen duten jardueren definizioan eta garapenean. Zentzu horretan, garrantzi berezia du hizkuntzen erabilera egokia zaintzea antolatzen diren bilera eta ekitaldietan. Era berean, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan koordinatzen diren proiektuen kudeaketan, euskara modu ekitatiboan erabiltzea, kudeatu beharreko aldagaia da.

Nolanahi ere, Emaizetara Bideratutako Aurrekontua (EBA) bultzatzea balio handiko tresna da hizkuntza berdintasuna bultzatzeko; izan ere, politika publikoen definizioan zeharkako politiken integrazioa sendotzea bilatzen baitu.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoa Lab programa (Etorkizuna Eraikiz). Prospekzio ariketa partekatu bat egitea lurraldeko eragileekin, lurraldearen etorkizun ekonomiko, sozial eta politikoa garantizatzeko funtsezko erronken inguruan, Gipuzkoaren epe ertainerako politika publikoak eta erronka estrategikoak eraikitzen laguntzeko

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	2.129.903,76	2.129.903,76	2.306.191,29		
1.1 Ekintza					
Pertsonen partaidetza bultzatu enpresan: proiektuaren koordinazioa eta ebaluazioa.	61.766,56	61.766,56	81.405,80		85,00
1.2 Ekintza					
Aukera berdintasuna eta kontziliazioa enpresan: proiektuaren koordinazioa eta ebaluazioa.	60.070,56	60.070,56	79.698,08		95,00

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
1.3 Ekintza Pasaiaiko egoitzaren proiektua bultzatzen lagundu.	60.070,56	60.070,56	79.698,08		95,00
1.4 Ekintza Boluntariotzako modu berriak bultzatu: proiektuaren koordinazioa, ebaluazioa eta finantzaketa .	138.950,56	138.950,56	150.755,95		100,00
1.5 Ekintza Ikus entzunezko produkzioa bultzatu: proiektuaren koordinazioa eta ebaluazioa.	54.581,64	54.581,64	74.141,69		100,00
1.6 Ekintza Berrikuntza gizarte eragileen bitartez bultzatu: eragile ekonomiko eta sozialei zuzendutako deialdia. Balore kooperatiboen gizarteratzea.	707.318,56	707.318,56	707.408,53		100,00
1.7 Ekintza Lau unibertsitateekin hitzarmenak: Etorkizuna Eraikiz programei lotutako ikerketa eta dibulgazioa sustatu.	607.318,56	607.318,56	601.355,19		95,00
1.8 Ekintza Etorkizuna Eraikiz barnean bultzatzen diren proiektuak nazioarte mailako sareetan txertatzen lagundu.	110.078,10	110.078,10	149.209,44		95,00
1.9 Ekintza Etorkizuna Eraikiz programaren barruan bultzatzen ari diren proiektuen gizarteratzea.	190.574,10	190.574,10	194.419,01		95,00
1.10 Ekintza Gipuzkoa Sarean: enpresa ertain eta txikiei zuzentzen zaizkien programen berrikusketa eta sustapen politiken inguruko gobernantza berria finkatzen laguntzea.	139.174,56	139.174,56	188.099,52		100,00

Kompromesu kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
Jarduketa ildoak, guztira	1.720.000,00	1.720.000,00	520.000,00
1.4 Ekintza Boluntariotzako modu berriak bultzatu: proiektuaren koordinazioa, ebaluazioa eta finantzaketa .	20.000,00	20.000,00	20.000,00

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
1.6 Ekintza Berrikuntza gizarte eragileen bitartez bultzatu: eragile ekonomiko eta sozialei zuzendutako deialdia. Balore kooperatiboen gizarteratzea.	500.000,00	500.000,00	500.000,00
1.7 Ekintza Lau unibertsitateekin hitzarmenak: Etorkizuna Eraikiz programei lotutako ikerketa eta dibulgazioa sustatu.	1.200.000,00	1.200.000,00	

2. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoa Taldean programa (Etorkizuna Eraikiz). Elkarlaneko gobernantza eredu bat instituzionalizatzea (elkarrizketa eta kontraste sare egonkorak sortzea eta proiektu partekatuak elkarrekin sortzea) Gipuzkoako gizarte antolatuaren deliberazio publikoa eranstea eta protagonismo berezia ematea gai publikoei eta/edo lurraldearen garapena ukitzen dutenei buruzko deliberazioan.

Ordainketa kredituak					
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	518.722,30	518.722,30	368.438,81		
2.1 Ekintza Gizartearen iritzia ezagutzeko neurketak egin.	54.913,64	54.913,64	42.531,48		100,00
2.2 Ekintza Sortu diren taldeak dinamizatzen eta koordinatzen lagundu.	82.658,10	82.658,10	45.309,68		85,00
2.3 Ekintza Gipuzkoa Taldean adostutako 4-5 proiektuak (Gipuzkoa 2026) zehaztu eta garatzen lagundu.	381.150,56	381.150,56	280.597,65		90,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	93.178,00	93.178,00	94.314,38	94.314,38	94.314,38	101,22
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	2.655.000,00	2.684.645,00	2.684.634,10	2.684.634,10	2.673.579,67	99,59
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	800.000,00	800.000,00	800.000,00	800.000,00	800.000,00	100,00
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.548.178,00	3.577.823,00	3.578.948,48	3.578.948,48	3.567.894,05	99,72
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	3.548.178,00	3.577.823,00	3.578.948,48	3.578.948,48	3.567.894,05	99,72

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales	Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos	Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados	Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.200.000,00	1.200.000,00			
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	520.000,00	520.000,00	520.000,00	520.000,00	100,00
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.720.000,00	1.720.000,00	520.000,00	520.000,00	30,23
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital					
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total	1.720.000,00	1.720.000,00	520.000,00	520.000,00	30,23

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	94.314,38			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	2.673.579,68			
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	800.000,00		520.000,00	
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.567.894,06		520.000,00	
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital				
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	3.567.894,06		520.000,00	
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	99,72		30,23	

Programaren datu orokorrak

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0130 - Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Programa: 300 - Komunikazioa
Funtzionala: 912 - Gobernu organoak

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Aldundia herritarrengana hurbiltzea, hauen perzeptzioa hobetuz eta eguneratuz, eta sendotzea barne komunikazioa eta Batzar Nagusietakoa, gardentasunean aurrera pausuak emanez eta langileen inplikazioa areagotuz.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Aurrekontua idazteko garaian eginiko diagnostikoak bere horretan jarraitzen du. Nahiz eta lan ugari egin den Aldundia herritarrengana hurbiltzeko misioan, oraindik egiteko asko dagoela uste da.

Zuzendaritzaren ekintza ildo nagusietako bat izan da sare sozialetan estrategia sakontzea eta hobetzea, jende gaztearengana heltzeko helburuarekin, konpondu gabeko arazoa baita hori.

Beharraren eboluzioa:

Komunikazioko zuzendaritzak komunikabideengana bideratutako lana indartzen jarraitu behar du eta baita hainbat ekinbide abiarazi Foru Aldundiaren komunikazio kanal propioak indartu eta modernizatzeko. Kanal horietako askok eguneratzeko beharra dute oraindik ere.

Nori zuzendua:

Herritarrak, langileria eta Batzar Nagusiak.

Estrategia del programa

1. Baliabideak (inputak):

Komunikazio taldea, ekintzak garatzeko kontratatutako enpresak, baliabide ekonomikoak, komunikaziorako tresneria eta teknologi berriak.

2. Garatu beharreko

Bilerak, plangintzak, prentsaurrekoak eta ekitaldiak, prentsa-oharrak, komunikazio bide berriak hobetzeko prestakuntza, kontratuak, sare sozialak...

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Komunikazio Plana, eguneroko prentsa dossierra, prentsa areto digitalizatua, Guztion Gipuzkoa aldizkaria, www.gipuzkoa.eus webgune berria, zuzeneko komunikazioa.

Programaren arau esparrua:

4/2014 Foru Araua, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa.
 Hauteskunde garaiko araudia.
 Kontratu publikoen araudia.

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa: Gipuzkoako gobernua atzera asmatzea
Proiektu estrategikoa: Gobernantza onaren estrategia
Urteko helburua: Aldundia herritarrengana hurbiltzea eta barne komunikazioa eta Batzar Nagusietakoa

Adierazlea

Neurri-
unitatea

Azken
balioa


2017-ko
Aurreikuspena

2017-ko
Erreala

Agintaldiko
helburua

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Komunikazio Plan berria jasotako helburuen >% 90 betetzea	Ehunekoa	22,50	45,00	45,00	90,00

Joera



Memoria

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoaren 6. departamentuen helburua bideratuta dago Aldundia herritarrengana hurbiltzera eta barne komunikazioa eta Batzar Nagusietakoa indartzera.

Horretarako, legealdiaren hasieran Foru Aldundiaren Komunikazio Plan berria idatzi zen. Aipatutako seigarren helburu horren lehentasunezko jarduera ildoetan ezarritakoa jarraituz, ahalegin berezia egin da diputatuen lana ezagutzera emateko formatu desberdinen bitartez, hala nola prentsurrekoen bitartez, mota desberdinetako ekitaldiak antolatuz eta zuzeneko komunikazioaren bitartez.

Zuzendaritzaren beste ekintza ildo nagusietako bat izan da sare sozialetan estrategia sakontzea eta hobetzea, jende gaztearengana heltzeko helburuarekin, konpondu gabeko arazoa baita hori.

Zuzendaritzaren ahaleginik handienak bideratu dira Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Etorkizuna Eraikiz ekimena ezagutzera eman eta gizarteratzera. Horretarako, hainbat kanpaina egin dira, eta baita komunikazio ekintzak, topaketak eta kongresuak ere.

Bestalde, errespetatu egin dira ekintzak gauzatzeko aurreikusitako datak, eta aurrekontuaren % 99,7 betetzea lortu da.

Foru plangintzaren hainbat baliabidetan ezarritako adierazleak bete egin dira. Zentzu horretan, ekitaldi honetarako aurreikusita zegoen Komunikazio Plan berriaren helburuen betetze maila % 45era iristea. Plan horren gauzatzeak dinamika ona darama eta, 2017. urtean, aipatutako betetze maila lortu da.

Hizkuntza berdintasunaren ikuspegiaren kudeaketari dagokionez, adierazi behar da aurrera eramandako ekintza guztietan txertatu dela. Dokumentu, kanpoko eta barruko komunikazio kanpaina, marketin, publizitate, ekitaldi publiko, webgune eta sare sozial guztietan txertatu da euskararen ikuspegia. Modu horretan, bete egin dira hasieran ezarritako helburuak.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Ekintza berriak martxan jartzea diputatuen lana ezagutzera emateko, eta Aldundia hurbilagoko erakunde bihurtzeko

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	605.382,20	452.321,60	456.512,64		
1.1 Ekintza www.gipuzkoa.eus webgune berria diseinatzea eta martxan jartzea, Aldundiaren alderdi digitalak eguneratuz (disenua, egitura eta edukiak eguneratuz).	445.644,30	445.644,30	449.683,62		100,00
1.2 Ekintza Prensa areto digitalizatua.	6.677,30	6.677,30	6.829,02		100,00
1.3 Ekintza Guztion Gipuzkoa aldzakaria.	153.060,60				

Kompromesu kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
Jarduketa ildoak, guztira	725.668,00	725.668,00	580.533,80
1.1 Ekintza www.gipuzkoa.eus webgune berria diseinatzea eta martxan jartzea, Aldundiaren alderdi digitalak eguneratuz (disenua, egitura eta edukiak eguneratuz).	725.668,00	725.668,00	580.533,80

2. Jarduketa ildoak:

GFako langileen esku jartzeko hainbat kanal eta tresna diseinatu eta martxan jartzea, zuzenean parte hartu ahal izan dezaten Kudeaketa Plan Estrategikoan, esate baterako, intranetaren bidez hainbat gairi buruzko iritziak eta ekarpenak jasoz

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	6.677,30	6.677,30	6.829,02		
2.1 Ekintza Langileei bideratutako newsletterra.	6.677,30	6.677,30	6.829,02		100,00

3. Jarduketa ildoak:

Komunikazio plan bat lantzea eta martxan jartzea, komunikabideekin kontratatuta, proiektu estrategikoen eta Kudeaketa Plan Estrategikoaren komunikazioa barne hartuko dituen

Ordainketa kredituak					
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	1.593.631,90	1.919.599,75	1.918.737,83		
3.1 Ekintza Sare sozialetan komunikazio estrategia.	211.210,60	220.015,98	209.454,14		100,00
3.2 Ekintza Komunikazio tresna berriak planifikatzeko parte-hartze prozesua.	140.910,60	149.715,98	157.605,34		100,00
3.3 Ekintza Publizitatea eta patrozinioak.	608.437,80	805.979,87	826.696,59		100,00
3.4 Ekintza Prentsa aurrekoak eta ekitaldiak.	180.568,40	180.568,40	127.359,28		100,00
3.5 Ekintza Erakundearen komunikazioko kanpainak.	452.504,50	563.319,52	597.622,48		100,00

4. Jarduketa ildoak:

Batzar Nagusietako komunikazioa indartzea hainbat neurriren bidez

Ordainketa kredituak					
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	36.354,60	36.354,60	25.358,71		
4.1 Ekintza BBNNetako agerraldi eta batzarren inguruko oharrak.	36.354,60	36.354,60	25.358,71		100,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	133.546,00	133.546,00	136.780,18	136.780,18	136.780,18	102,42
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	2.108.500,00	2.281.407,26	2.280.944,79	2.280.944,79	2.270.657,95	99,53
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.242.046,00	2.414.953,26	2.417.724,97	2.417.724,97	2.407.438,13	99,69
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	2.242.046,00	2.414.953,26	2.417.724,97	2.417.724,97	2.407.438,13	99,69

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA					
Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales	Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos	Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados	Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	725.668,00	725.668,00	580.533,80	580.533,80	80,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES					
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	725.668,00	725.668,00	580.533,80	580.533,80	80,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital					
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total	725.668,00	725.668,00	580.533,80	580.533,80	80,00

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	136.780,24			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	2.270.657,96		580.533,80	
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.407.438,20		580.533,80	
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital				
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	2.407.438,20		580.533,80	
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	99,69		80,00	

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala:	0140 - Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Programa:	400 - Bizikidetza eta Giza Eskubideak
Funtzionala:	327 - Herritarren bizikidetza sustatzea

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Bakea behin betiko eta modu atzeraezinean finkatzen laguntzea, eta Gipuzkoako kultura demokratikoa sakontzea, gipuzkoarren elkarbizitza hobetuz.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Aniztasuneko bizikidetza eta giza eskubideen kultura pixkanaka Gipuzkoako kulturaren integratzen doa. Bizikidetza Lantzen programaren hausnarketa bat egin da, Aniztasuneko Bizikidetzako Foru Plana prestatu da eta Gipuzkoako herritarren kultura politikoari buruzko ikerketa bat burutu da.

Beharraren eboluzioa:

Kultura politikoaren sakontzean, Bizikidetza Lantzen programan eta aniztasuneko bizikidetzan udalekin, ordezkari politikoekin eta herriarekin lan egin da. Dena den, kultura politiko demokratikoa finkatzea epe luzerako inbertsio bat da, oraindik lan handia behar duena.

Nori zuzendua:

Herritar guztiak, baita ordezkari instituzionalak ere (udaletako eta Batzar Nagusietako ordezkariak).

Estrategia del programa

1. Baliabideak (inputak):

Bizikidetza eta Giza Eskubideetako zuzendaritza. Aurrekontua. Kanpoko asistentzia teknikoa.

2. Garatu beharreko

Diru laguntzak eta hitzarmenak.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Bizikidetzarako planak, formakuntza, jakinduria

Programaren arau esparrua:

NNBBen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta beste Nazioarteko Hitzarmen guztiak. Eusko Jaurlaritzaren "Plan de Paz y convivencia". Oroimen Historikoari buruzko legea. Diru laguntzen Foru Araua.

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa: Herritarren arteko elkarbizitza finkatzea

Proiektu estrategikoa: Kultura Politikoa eta Demokrazia Sakontzeko Programa


Urteko helburua: Bakea behin betiko eta modu atzeraezinean finkatzen laguntzea, eta Gipuzkoako kultura demokratikoa sakontzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Errealia	Agintaldiko helburua
Plan honetan ezarritako ekimenetatik % 80tik gora gauzatzea	Ehunekoak	20,00	50,00	40,00	80,00
Gipuzkoako herritarrek herritarren elkarbizitzari ematen	Ehunekoak	6,90	7,10	6,90	7,30


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Errealak	Agintaldiko helburua
dioten balorazioa (sexuaren arabera banatuta)					
Bizikidetzarako plana daukaten udalen kopurua	Kopurua	20,00	22,00	23,00	26,00

Joera


Plan honetan ezarritako ekimenetatik % 80tik gora gauzatzea – Ehunekoa



Gipuzkoako herritarrek herritarren elkarbizitzari ematen dioten balorazioa (sexuaren arabera banatuta) – Ehunekoa



Bizikidetzarako plana daukaten udalen kopurua – Kopurua



Memoria

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaritzako betetze maila nahiko altua izan dela esan genezake.

Bi ekimen azpimarratu nahi ditugu, bereziki: alde batetik, kontraste fasea egin eta gero Aniztasuneko Bizikidetzarako foru planaren erredakzioa amaitzen da, 2018ko urtarrilean onartzeko asmoz; beste aldetik, Gipuzkoarren Kultura Politikoari buruzko ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboak 2017an amaitzen dira.

2017rako aurreikusitako gainontzeko jardueri dagokionez, betetze maila ona izan da, eta epeak modu egokian errespetatu dira, Eskura Baliabide Pedagogikoen Gunea abian jartzea 2018ra atzeratu behar izan den arren.

Adierazleei dagokionez, lehenengoak modu zuzenean egiten du aurrera, zuzendaritzak bere helburuak eta plangintza betetzen baititu.

Bigarren adierazlea herritarren bizikidetzari egiten dio erreferentzia, baina aurtengo inkestan ez diegu gipuzkoarrei elkarbizitzari ematen dioten baloraziorik eskatu, beraz, bigarren adierazleak 2016ko balorea mantentzen du. Dena den, 2017 urte amaieran Bizikidetzaren Lantzen programaren hausnarketa egin da: parte hartu duten udal ordezkari zein herritar foroetako partaideek oso balorazio baikorra egiten dute.

Hirugarren adierazlearen (bizikidetzaren plana duten udal kopurua) betetzeari dagokionez, modu onean egin dugu aurrera, legealdiko helburuaren %70 bete dugularik. Izan ere, Udalerrietako Bizikidetzaren planak 2017 urtean 23 izan dira, eta lau herri txikietan bizikidetzaren eta giza eskubideak sustatzeko mikroekintzak burutu dira.

Aurrekontuaren betetze mailari dagokionez, ona izan da (%95,92) eta desbideratze txiki batzuk egon dira bakarrik, Gipuzkoarren Kultura Politikoaren ikerketak eta Aniztasuneko bizikidetzarako planak suposatzen duen lan hauek burutu ahal izateko, partida batzuen arteko mugimendu txikiak egon direla.

Hizkuntza Berdintasuna:

Finkatu ziren helburuak betetzeko, euskararen erabilera bultzatu da bai zuzendaritzaren beraren jardueretan, bai udalek eta irabazi asmorik gabeko erakundeek garatu dituzten diruz lagundutako jardueretan.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Bakeari, elkarbizitzari eta giza eskubideei buruzko udal politikak sustatzea Gipuzkoako elkarte sarearekin aliantzan

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	466.954,68	466.954,68	429.918,28		

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
1.1 Ekintza					
Bizikidetzarako udal planak diruz lagundu	314.202,08	314.202,08	282.281,49		100,00
1.2 Ekintza					
Udaletan egingo diren bizikidetzarako eta giza eskubidetzarako ekintzak sustatzea	152.752,60	152.752,60	147.636,79		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Giza eskubideen ezagutza eta errespetua sustatzea, gaiari buruz sentsibilizatzea eta zabalkundea ematea, dibulgazio jardueren bitartez, sentsibilizazio kanpainak eginez, baliabide pedagogikoak baliatuz, lankidetzak hitzarmenak sinatuz, etab.

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	617.437,84	647.533,63	669.165,84		
2.1 Ekintza					
